

LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2025-10-06

BILERA ZENBAKIA: 9

ORDUA ETA LEKUA: 17:30 Itsasondoko udala

PARTEHARTZAILEAK: Elena (Udal zinegotzia), Bihotza (Gizarte Langilea) eta Mainer.

LANDUTAKO GAI ORDENA

Festak:

Kultur teknikariari jakinarazi diogu gure ikuspuntua, adostu genuen bezela, proposamena luzatu diogu eta festetako telegram mezuetan azalduko da: “Festetan guztiok parte hartzea nahi dugu! Une honetan zailtasun ekonomikoak badituzu, jarri Gizarte Langilearekin harremanetan”. Hurrengo urteko kartelean zuzenean txertatuko dute.

Menopausia:


Urriaren 18an “Menopausiaren Mundu Eguna” dela aprobetxatuz, herri mailan gai honen inguruan interesa duen emakumeen artean telegram talde bat sortzea baloratu dugu.

Elkarriketa:

Tarik hassad izan da elkarriketatua.

Otsotruk:

Ataungo Jonekin kontaktuan jarri gara, Otsotruk taldekidea, eta gure herrirako dugun asmoa azaldu diogu. Otsotruk taldearen berri izan dugu, martxan dagoen talde bat da, balorazio positiboa egiten dute partaideek. Eta egoera aztertuta beraien proiektua kopiatzeko baimena eskatu diogu, erabilera irizpideak esaterako. Arazorik ez dutela adierazi digu Jonek, beraz, 2026ko urtarilean, urte berria hastearekin batera, proiektu berria martxan jartzea adostu dugu. Gure kasuan telegram taldea sortuko dugu eta udalak duen kanaletik zabaltzea eskatuko dugu, baita herri bizitzako whatsapp taldeetatik ere.



Umeentzako ipuin eta liburu azoka:

Aurreko urteetan bigarren eskuko jostailu azoka antolatu dugu, baina urtez urte jostailu gutxiago jaso ditugu. Beraz, tematika urtero aldatzea erabaki dugu, berritasunarekin “arrakasta” berreskuratzeko asmoz. Aurten bigarren eskuko umeentzako ipuin eta liburu azoka antolatuko dugu. Bertan ipuina utzi edota hartzeko aukera izango da, ez da trukea ezinbestekoa izango eta ez da salerosketarik onartuko. Azokan bertan utzitako liburuak Bihotzak eskainiko ditu bere erabiltzaileen artean eta, ondoren, eskolari dohaintza emango zaio.

Kulturartekotasuna:

Maidar Avaristok azkeneko aurrekontua bidali digu, urtea bukatu bitartean eskuartean ditugun bilerak zehazteko. Aurtengo gora beherak direla eta ez dakigu zehaztasunez aurrekontua onartuko del ala ez. Bihotzak ongizateko diru kontuak eguneratuko ditu eta taldeari jakinaraziko dio. Aurrerago, Emaginekin batera, 2026rako aurreikusten dugun proposamena aurkeztuko dugu.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
Telegram taldea sortu (menopausia)		Maidar
Bigarren eskuko telegram taldea		Maidar
Eskola, ipuin azoka		Maidar
Emagin aurrekontua		Bihotza
Mediku etxeko lizitazioa		Bihotza
2024-2025 aurrekontuak		Bihotza

HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera: azaroaren 3an, 17:30etan, udaletxeko bigarren solairuko bilera gelan.